

XX. KROSS ETA HAND-BIKE ANTIXINTXIKA LASTERKETA

SORALUZE – BERGARA

2026ko urriaren 31

Antxintxika Triatloi Taldeak, Bergarako eta Soraluzeko udalen laguntzarekin, XX. Antxintxika Lasterketa antolatuko du, korrika, patin, gurpildun aulki eta hand-bike modalitateetan. Probak urriaren 31n egingo dira, 10 km-ko ibilbidea osatuz. Parte hartzeko, 16 urte beteta izatea beharrezkoa izango da.

1. IZEN-EMATEAK

Nola eman izena?

Webgunea: www.kirolprobak.com

Izen-emate epea

- Izen-emateak irekiera-egunetik urriaren 30era egongo dira zabalik, eguerdiko 12:00ak arte.
- Izen-ematea egin ondoren, ez da dirurik itzuliko.
- Probaren egunean ezin izango da izena eman. Parte-hartzaile kopurua 500 pertsonara iristean itxiko da izen-ematea.

2. MAILAK

Korrika

- Korrika talde batean izena emateko aukera ere egongo da, eta taldekako sailkapena egingo da.
- Neska- edo mutil-taldeek gutxienez 3 eta gehienez 4 pertsona izango dituzte.
- Talde mistoek gutxienez 4 pertsona (bi neska eta bi mutil) eta gehienez 8 pertsona izango dituzte.
- Sailkapenerako, neska- eta mutil-taldeetan helmugara iristen diren lehen hiru partaideen denborak hartuko dira kontuan; talde mistoetan, berriz, lehen lau partaideenak, betiere lehenengo bi neskak eta lehenengo bi mutilak izanik.

Hand-bike

Patinak

3. DORTSALAK

- Dortsala bistan eraman beharko da, tolestu gabe, eta daraman publizitatea ezin izango da estali edo aldatu.



- Dortsalik gabe parte hartzeak, dortsala tolestuta eramateak edo aldatzeak automatikoki deskalifikatzea ekarriko du.
- Dortsalak jasotzeko tokia: Herri lagunak kalea Bergara. ARGAZKIKO eremuan.

4. SARIAK

Krossa

- 1. absolutua (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 2. absolutua (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 3. absolutua (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 1. bergatarra (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 1. soralezatarra (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- Mikel Crespo saria eta Oliver Hernandez saria: 1. Debagoiendarra (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- Lasterketako beteranoentzat sari berezi bat egongo da.
- Talde misto onena.
- Mutil-talde onena.
- Neska-talde onena.

Patinak

- 1. (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 2. (gizonezkoak eta emakumezkoak).
- 3. (gizonezkoak eta emakumezkoak).

Hand-bike eta gurpildun aulkiak


Detaile bereziak.

5. AUTOBUSAK

- Bergaratik, bariantean autobusa egongo da Soraluzera joateko.
- Oharra: autobusa partaide guztientzat egongo da.

6. POLTSAK

- Nahi duten partaideek arropa poltsa itxi batean utzi ahal izango dute.
- Poltsan dortsal-zenbakia adierazi beharko dute, dortsalarekin batera emango den pegatina erabiliz.
- Poltsak irteera-puntuan utzi beharko dira, helmugara eraman daitezzen.
- Poltsak 16:40rako utzi beharko dira, eta ordu horretan furgoneta batek helmugara eramango ditu.



7. IRTEERA

Soraluzen, Etxaburueta kalea



8. IRTEERA-ORDUA

- Probaren hasiera:
- Hand-bike: 16:30ean.
- Patinak: 16:45ean.
- Krossa: 17:00etan.

9. IBILBIDEA

- Ibilbidea: SORALUZE – OSINTXU (zubi zaharra) – “SORALUZE” LANTEGIKO ZUBIA – MEKOLALDE – SAN LORENTZO – ZUBIETA – INFERNUKUA – ARRANO – IRIZAR – IBARGARAI – ZURRADERO – PALMERA – IBARGARAI – IRALA – BARRENKALE – SAN MARTIN PLAZA (helmuga).
- Puntu kilometrikoak adierazita egongo dira.
- Debekatuta egongo da bizikletaz edo beste ibilgailu batez laguntzea.
- Erratz-furgoneta egongo da lasterketa utzi behar dutenentzat.

10. HORNIKUNTZA-POSTUAK

Antolakuntzak 6. km-an eta helmugan hornikuntza-puntuak jarriko ditu.

11. HELMUGA ETA HELMUGA-INGURUA

Helmuga San Martin enparantzan jarriko da.

12. MEDIKU-ZERBITZUA ETA ASEGURUA

Partaide guztiak izena ematearekin aseguraturuta egongo dira, eta ibilbidean anbulantzia-zerbitzua egongo da.

13. GOMENDIOAK

- Antxintxika Triatloi Taldeak eta Kirol Egokituko Federazioak azterketa medikoa egitea gomendatzen dute parte hartu aurretik.
- Lasai irten.
- Ez alferrik galdu hornikuntza; gogoratu atzetik datozenek behar handiagoa izan dezaketela. Garbiketa-lanak errazteko, mesedez, ez bota botilak ibilbidetik kanpora eta saiatu zabor bakoitza bere lekuan uzten.
- Indarrak ondo neurtu, eta gogoratu hobe dela ezin denean uztea, ondoren damutzea baino.
- Jende-pilaketak ekiditeko, ez zaitez gelditu helmuga pasa bezain pronto.

14. UME ETA GAZTETXOENTZAT LASTERKETAK

- 15:00etatik aurrera, 12 urtera artekoentzat lasterketak egongo dira.
- Gaztettoen proba hauetan parte hartzeko, beharrezkoa da gurasoen baimen-formularioa betetzea. Helmuga-puntuan egongo dira formularioak.

15. DUTXAK ETA GURPILDUN AULKIENTZAKO APARKALEKUA

- Dutzak Agorrosingo igerilekuetan egongo dira.
- Gurgildun aulkientzako aparkalekua Seminarioko patioan egongo da.

16. ZOZKETA

Zozketa berezia egingo da partaide guztien artean.

INFORMAZIOA

Telefonoa: 636515218